

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Tokiko gobernu batzarreko kideak izendatzea

Aguraingo alkateak, 2019ko ekainaren 19ko dekretu baten bidez, ebazpen hau eman du:

Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 20. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezartzen da ezen tokiko gobernu batzarra 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztietan dagoela.

Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak, zeina azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onetsi baitzuen, 46., 52. eta 53. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta.

Ebazten dut

1/Tokiko gobernu batzarreko kide izendatzea zinegotzi hauek:

- Rubén Ruiz de Eguino López de Guereñu.
- Ana María Gorospe Larrea.
- Iruñe Muguruza Mendarte.

2/Tokiko gobernu batzarrearen bilerak zenbatean behin egingo diren zehaztea: astean behin, asteazkenetan, zortzietan, opor aldietan salbu (Aste Santua, abuztua eta Gabonak). Arrazoi justifikaturen bat baldin badago, bilera arrunten eguna eta ordua aurrera edo atzera daitezke, nahiz eta jarritako egun berria ez izan aste horretakoa bertakoa; nolana ere, bilera arrunta izango da.

3/ Izendapen horiek interesdunei jakinaraztea.

4/ Egiten den lehenengo osoko bilkuran udalbatzari horren berri ematea.

5/ Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Agurain, 2019ko ekainaren 28a

*Alkatea*

*ERNESTO SAINZ LANCHARES*